

@@@AGINDUA, 2010eko irailaren 9koa, Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuarena, ekintza humanitario bati diru-laguntza ematen diona, garapenerako lankidetzarako eta laguntzarako 2010eko fondoaren kargura.@@@

Otsailaren 19ko 31/2008 Dekretuak ekintza humanitarioetarako laguntzak arautzen ditu, garapen lankidetzaren kargurakoak, eta bi jarduera-mota bereizten. Alde batetik, larrialdietan laguntzeko proiektuak daude, zeinen bidez, biziraupena bermatzeko eta hondamendiek eragindako sufrimendua eramangarriago egiteko, oinarritzko ondasunak eta zerbitzuak eskuragarri jarri nahi baitira, urgentziaz. Bestetik, ekintza humanitarioetarako proiektuak daude, zentzu zabalagoan. Horri lotutako jarduerak larritasun-maila txikiagokoak dira, eta garapena, giza eskubideak eta bakegintzaren oinarriak sustatzeko dira.

Aipatutako dekretuaren 4. artikulua dioenez, urtero egingo da laguntza-deialdia, Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuaren aginduaren bidez. Bi finantzaketa-lerroak bilduko ditu. Finantzaketa-lerro iraunkorra: urte osoan irekita egongo da, larrialdi-laguntzetarako izango da, eta ekintza humanitarioetarako laguntza-eskariak aurkeztu ahal izango zaizkio. Beste finantzaketa-lerroa, ordea, ekintza humanitarioetarako esparru-estrategiak onesteko izango da. Horri jarraikiz onetsi zen honako agindu hau: Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2010eko otsailaren 3ko Agindua, ekintza humanitarioen laguntzetarako deialdia egiten duena, garapenerako lankidetzarako eta laguntzarako 2010eko fondoaren kargura.

Ondorioz, ekintza humanitarioetarako laguntzak –garapenerako lankidetzaren kargurakoak– arautzen dituen otsailaren 19ko 31/2008 Dekretuaren 16. artikuluan ezarritakoa betez, Garapenerako Lankidetzarako eta Laguntzarako Fonda Kudeatzeko Batzordearen proposamenez (martxoaren 30eko 62/2004 Dekretuak arautzen du batzorde hori), eta Garapenerako Lankidetzarako Zuzendaritzak aurretiaz txostena egin ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

Lehenengoa.- Nazioarteko Elkartasuna - Solidaridad Internacional entitateak eskatu duen proiektuaren etengabeko finantzaketa-lerroan, larrialdi eta giza ekintzarako diru-laguntza ematea. Gazako Zerrendan, osasun-baldintzak txarrei aurre egiteko eta giza eskubideak defendatzeko da aipatu laguntza; hartarako, honako eginkizunak bururatuaz: ospitale baten eta lau osasun-zentrotan zerbitzuak izaten lagundu, osasun-larrialdi aurre egiteko hamar oinarri-erakunderen gaitasunak sendotu, eta gatazka-egoeretako giza eskubideei buruzko sentsibilizazio-kanpaina bat gauzatu.

Bigarrena.- 195.099,99 euroko ordainketa bakarraren bidez ematea laguntza. Proiektua 2010eko urtarrilaren 22an hasi, eta 2010eko martxoaren 31n amaituko da. Beraz, diru-laguntza zuzitzeko epea 2010eko uztailaren 31n amaituko da.

Hirugarrena.- Agindu hau erakunde eskatzaileari jakinaraztea eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzea, jende guztia jakinaren gainean egon dadin.

Laugarrena.- Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez dakioke organo berari, agindua jakinarazi eta biharamunetik aurrera, hilabeteko epean. Bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ere aurkez daiteke zuzenean, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, agindua jakinarazi eta biharamunetik aurrera, bi hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko irailaren 9a.

Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburua,

MARÍA GEMMA ARÁNZAZU ZABALETA ARETA.